

# **EUSKARAREN IBILBIDEA FORU ALDUNDIETAN**

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.25*

*Patxi Uribarren Leturiaga*

## **1. AURKEZPENA**

Alorra aztertzen hasi aurretik, ezinbestekoa dugu, gaur egun Aldundiek duten antokaketa, laburkiro, bederen, gogora ekartzea. Hala ere, ez nituzke errepikatu nahi Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren izenean hitz egin duen ordezkariak gogora ekarritakoak. Beraz, alde batera utziko ditut gogoera abstraktuak eta nire aurkezpen hau alor zehatzetara mugatzen saiatuko naiz.

## **2. ALDUNDIEN ESPARRU OROKORRA**

Une honetan, Euskal Herriko Autonomi Elkarte barruko hiru aldundiak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrialdeetako gobernauak ditugu. Hain zuzen ere, Autonomi Elkarte osorako erakunde eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko-Ihardutze Erakundeen arteko harremanetarako azaroaren 25eko 27/83 Legearen arabera, hainbat eskumen edo ahalmen beren esku dituzten Erakunde Nagusiak.

Beraz, Autonomi Elkartean eginiko eskumenen banaketaren ondorioz, Aldundiek hainbat erantzunkizun dituzte beren esku, besterik beste, alor hauetako zerbitzuenak: Nekazaritza, Gizarte Ongizatea, Kultura, Ogasun eta Finantza, Herrilan, Ekonomi Sustapen, Ingurugiro, Garraio eta Hirigintzakoak eta Lehendakaritza pean dauden suhiltzaileenak edo eta barne Diputatu Nagusiak edo bere Idazkaritza Orokorrak bideratzen dituen udaleekiko harremanak.

Aldundien goi organu gisa, Batzar Nagusiak ageri zaizkigu, Eusko Legibiltzarren antzera, dagokien esparruan legeak egiteko eskumenak dituztela eta Aldundien iharduketa kontrolatzeko zeregina dutela

Beraz, eskumen guzti horiek direla tarteko Herrialde mailan jendea-rengandik oso hurbil diharduten erakunde nagusiak izatean, izugarritzko eragina izango dute gizartean, hots, Herrialde barruko erakunde ezberdinetan, batik bat, udaletan.

### 3. EUSKARAREN ERABILERA

Autonomi Elkarteko hiru Herrialdeetako Erakunde Nagusi hauetan euskarari eskaintzen zaion tratamendua aztertzeraz jo aurretik, beste zerbait ere gogora ekarri behar dugu. Hain zuzen ere, ez dela hiru Herrialde hauetan inolaz ere berdina euskararen egoera. Horrek, hainbatetan baldintzatuko du euskarari Foru Administrazioek ematen dioten zein eman beharko lioketen erantzuna.

Bestalde, Herrialderik Herrialdeko datuak aurkeztu aurretik, gogora ekarri behar dugu Autonomi Elkarteko administrazio osoan “hizkuntz eskakizunak” ezarri direla. Beraz, lanpostuei, euskararen ezagupenari dagokionean, eskakizun maila zehatza ezarri zaiela, horren arabera epe jakin batzutan, bertan lanean ari direnek lanposturako eskatzen den hizkuntza maila izan beharko dutela. Maila horiek, jakina, euskarak Herrialde bakoitzean duen egoera eta lanpostuen baldintzak kontuan direla ezarri izan dira.

Honetaz gainera, arazoa behar den eran planteatzeko, bereizketa bat ere egin behar dugu azterketa honetan aurrera jo aurretik, hots, *administrazioak euskara erabiltzeko eman dituen urratsen eta egokiro erabiltzearen artean egon daitekeen aldeari dagokiona*, ez baita nahikoa ihardunaldi hauen aztergai den “Hizkuntzaren erabilera zuzena” bermatzeko euskara erabiltze hutsa, erantzun zuzena ematekotan euskara gutxienezko baldintzetan erabili beharko baita.

*Hizkuntzaren erabilera, bestalde, bi era ezberdinetan, ahozkoan eta idatzian gauzatzen da*, Foru Administrazioak bi era horietan eskaintzen dituela bere zerbitzuak. Beraz gogoeta hauetan hizkuntzaren erabilera aztertzerakoan, bi ardatz horiek gogoan ditugula ihardungo dut, ez delako bataren zein bestearen erantzun maila eta eragina berdina.

### 4. EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ANTOLAKETA

Une honetan, hiru Aldundiek Euskarako Zerbitzuak edo Hizkuntza Normalizaziorako Atalak dituzte antolatuta. Horrela erakunde bakoitzaren euskararen erabileraz arduratzen diren Atalak ari dira lanean. Nahi-

ko argi antolatuta dugu, bada, alor hau eta emaitzak emateko bidea hartuta. Atal edo Zerbitzu horiek bi eginkizun nagusi bete ohi dituzte:

1. *Erakundeko funtzionarien euskalduntzea*: horretarako ikastaroak antolatuz eta behar diren baliabideak bertako langileen esku jarritz nahiz barne-programaketak egiten saiatuz. Alor horren bidez euskararen ahozko erabilera bermatzeko bideak jarri dira, batik bat.

2. *Erakunde barruko euskararen erabilera zaintzea*: Alor hau batez ere erabilera idatziari dagokio, Euskararen Legeak eta Aldundiek beraiek jadanik erabakitakoei jarraituz Erakunde barruko idatzizko testuak (batez ere kanpora ateratzen direnak) euskaraz eta erdaraz eginak izatea bermatuz. Lan hau, ia oso-osorik, itzultzaileen bidez burutzen da.

Antolamendu horren bidez Erakundearen barneko euskararen erabilera zein kanpora begira betetzen duen iharduna bideratzen dira. Arazoaren ikuspegi orokorra emateko azken banaketa hau (*ahozko eta idatzizko erabilera*) ardatz dudala aztertuko dut gaia.

## 5. EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA

Erabilera mota honek, Foru Erakundeekin harremanetan jartzen direnei, besterik gabe, harrera lekuetan zein beste egoera batzutan ahozko azalpen bidez eskaintzen zaizkien zerbitzua barnehartuko luke.

Hizkuntza alorrean ahozko erantzuna emateak, idatzian ez bezala, planifikazio nahiko berezia esaktzen du. Errazagoa da, hainbatetan, idatziari egokiro erantzutea, hori itzulpen bidez eman daitekeelako. Ahozko erantzunak lanpostuetan lanean ari diren pertsona euskaldunen bidez bakarrik aman ahal izaten dira.

Foru Erakundeek azkenaldi honetan urrats handiak eman dituzte, oraindik gutxienezko maila lortzeko bidea luzea baldin bada ere. Egin diren inbertsioak ere halakoak izan direla aitortu behar. Behar bada handiegiak lortu diren emaitzen parean! Langileei erraztasunik handiak eman zaizkie euskara ikasteko zein hobetzeko.

Laburkiro zein egoeratan aurkitzen den arlo hau aurkeztu nahi nuke, azterketa sakonagoak egitea gerorako utziz. Lanerako hiru Foru Aldundietako Hizkuntza Normalizazio Ataletako arduradunen eskutik jasotako datuak erabiliko ditut:

### a) **Emaniko urratsak**

Aipatu dugun bezala, Aldundiak herritarrekin zuzenean dituen harremani euskaraz erantzutera bideratuta genuke. Horretarako funtzionari euskaldunak behar dira eta, jakina, hori lortzeko euskalduntze-alfabetatze bideak jorratu beharra dago. Bestalde, esan dugu, baita ere, Administrazio mota guztietan hizkuntza eskakizunak jarri direla bidean (1990-1995) urteen artekoak jadanik martxan direla. Hauen bidez, batez ere, ahozko beharrianei emango zaie erantzun zuzena.

Une honetan, Aldundi bakoitzetik jasotako datuen arabera, honelakoa genuke beraietan hizkuntzaren ezagupen maila.

**Araban:** 1990-1995 urteen artean hizkuntza eskakizuna lortu behar dutenen kopurua: 125. Jadanik lortu dutenak edo 45 urtetik gorakoak direlako lortu beharrik ez dutenak: 65; *lortu beharra dutenak*: 45; azken hauek duten euskara maila honakoa da: 8 pertsona alfabetatze mailan; 3 pertsona 12/11. urratsetan (EGA); 5 pertsona goi mailan (9/10. urratsetan); 19 pertsona erdi maila altuan (7/8 urratzetan) eta 25 pertsona erdi mailan (4/5/6. urratsetan).

**Bizkaian:** Erakunde barruko 3.123 langileen artean 805 langilek (% 25ek) dute derrigorrezko hizkuntza eskakizuna bete beharra. Une honetan lortua dute 551ek (% 67k). Horien artean eskakizun maila ezberdinak daudenez honelako emaitzok ditugu: 8 langilek 4.HE (Lana euskaraz egiteko gai); 140k 3.HE (EGA); 291k 2.HE (8/9 urratsa) eta 15ek 1.HE (6 urratsa). Guzti horiei beste hauek erantsi behar zaizkie: Oposaketak euskara eginiko 7 itzultzaile eta Hizkuntza Normalizazioko 4 teknikariak, hizkuntza eskakizunik izan gabe euskaldunak direnak (45 urtetik gorakoak) eta ikasten ari direnak: 6 alfabetatzen; 10 pertsona 11. urratsean; 44 pertsona goi mailan (9/10. urratsetan); 26 pertsona erdi maila aurreratuan (7/8. urratsetan); 40 pertsona erdi mailan (4/5/6. urratsetan) eta 30 beheko mailean (1-4 urratsetan).

**Gizpuzkoan:** Erakunde barruko 1371 langileen artean 586 langilek (% 30ek) dute derrigorrezko hizkuntza eskakizuna bete beharra. Une honetan lortua dute 442k (% 72k) horien artean eskakizun maila ezberdinak daudenez honelako emaitzok ditugu: 13 langilek 4.HE (Lana euskaraz egiteko gai); 67k 3.HE (EGA); 214k 2.HE (8/9 urratsa) eta 148k 1.HE (6 urratsa). Guzti horiei beste hauek erantsi behar zaizkie: Oposaketak euskara eginiko 9 itzultzaile eta Hizkuntza Normalizazioko 3 teknikariak, hizkuntza eskakizunik izan gabe euskaldunak direnak (45 urtetik gorakoak) eta ikasten ari direnak: 47 alfabetatzen; 9 pertsona 11. urratsean; 50 pertsona goi mailan (6/8. urratsetan); 122 pertsona erdi mailan (5.etik beherakoak).

## b) Arazo nagusiak

Azken hamabi urte hauetan, oposaketetan euskarari emaniko balorazioa, euskarako ikastaroak eta abar direla tarteko euskaldunen kopurua zein hizkuntzaren ezagupen maila hainbat hobetu bada ere, badira oraindik zenbait arazo foru administrazioek beren zerbitzu guztiak euskaraz eman ahal ziateko. Besterik beste, honako hauek nabarmenduko nituzke, pertsona konkretuen kasuetako arazoak alde batera utziz:

1. Hemen aipatzen diren datuak ezagupenari dagozkienak dira. Interesgarria litzateke erabilpenari buruzko ikerketa egitea. Jarraipena zehatza egin beharra dago, ikasi dutenak euskara gal ez dezaten nahiz lanean erabil dezaten.

2. Oraindik (Bizkaian, behintzat, eta zer esanik ez Araban) hainbat alorretan ez dira ahozko zerbitzuak euskaraz eskaintzen, euskaldunoi administrazioarekin euskara erabiltzeko eskubidea praktikan ukatzen zai-gula.

3. Euskalduntzean ahalegin handiak egin badira ere, ez da hala-korik egin funtzionari euskaldunak administrazioan zehar egokiro bana-tzen. Honetan zuhurtzia handiz, inor baztertu edo euskararen aurka jar-tzera bultzatu gabe jokatu behar bada ere, aurrera egin beharra dago, osterantzean, Erakundearen euskalduntzea eta euskaraz eskaintzen di-tuen zerbitzuen arteko desoreka sort daiteke eta.

4. Oraindik ez dira urratsak eman “euskara hutsezko administrazio adarrak sortzeko”. Ez da nahikoa atezainak euskaraz egitea edo eta sail batetako idazkariak, euskaldunari arazoa konpondu behar dionak ez al-din badaki. Hori hutsaren hurrengoia edo izango litzateke. Honek eskaini beharreko zerbitzuak euskaraz ematea abiaburutzat hartuz antolatzea es-katzen du.

5. Administrazioak jarrera aldatu beharra du. Jendearekin harre-manetan ari diren langileek, beraiek eskaini beharko lituzkete zerbitzuak euskaraz, euskaldunek administrazioaren aurrean duten jarrera ezkorra gainditzeko. Euskaldunok nahiko gogaituta gabiltza beti euskaraz eskatu eta muturreko erantzunak entzuten.

6. Egin izan diren salbuespenek ere ez dute bidea errazten, goiko mailako arduradun ugari erdaldun hutsak baitira eta hainbat, era berean, berrogei urtetik gorako langileak. Neurriak garaiz hartu ezik, urteak au-rrrera joan ahala gehiago izango dira adin horretara heldurik beren bu-ruak salbuetsirik ikusiko dituztenak.

## 6. EUSKARAREN IDATZIKO ERABILERA

Alor hau dugu neurtzeko errazena eta foru administrazioen aurpegia garbien ageriko egiten duena. Esan berri dugun bezala, ugaria da alor honetan egiten den hizkuntzaren erabilpena. Ahozkoan ez bezala, politika bateratua burutu izan da hainbatetan.

Idatzizko lanik gehiena itzultzaileen bidez euskaratzen da, bai hiru Aldundiek argitaratzen dituzten Adizkari Ofizialetan bai Erakundeke barne-harremanerako erabiltzen diren inprimaki eta gainerako idazkietan.

Oraingo honetan ere bereizketa egin beharra ikusten dut, idatziz eskaintzen diren testu guztiek ez dutelako garrantzi berbera. Batzuren kontrola, gainera, errazagoa eta agerikoagoa da. Hori dela eta bi alor bereiztuko nituzke: a) Aldizkari ofizialetan erabiltzen den euskara eta b) Erakundeetako barne harremanetan erabiltzen dena. Euskaratzen parte hartzen dutenak pertsona berberak (itzultzaileak) baldin badira era atalka aztertuko ditut:

### 1) Aldizkari ofizialak

Foru aldundiek argitaratzen dituzten Aldizkari Ofizialek bideratzen dituzte euskararen idatzizko erabileraren nondik norakoak. Bertan agertzen dira, Erakunde nagusi horien arau, dekretu, agindu eta iragarpenak. Era berean, baita ere, udalena eta beste administrazioetatik bidalitakoak, esaterako, epaitegietakoak.

Hori dela eta garrantzi handia izango du beraietan erabiltzen den euskarak, hain zuzen ere, ondorio gisa administrazioeko barneko harremanetarako inprimaki eta abarretarako bidea egiten dutelako. Eragin zuzena du udal administrazioan ere. Pertsona partikularrek ere sarri jo behar izaten dute bertara zenbait berri ofizial jakiteko.

#### a) *Emaniko urratsak*

Orokorrean, Foru Aldundiek argitaratzen dituzten Aldizkari Ofizialetan, beren aginduz edo kabuz argitaratutako Aldundietako testuak bi hizkuntzetan argitaratzen dituztela esan dezakegu. Gainerako testuetan ez da bide berdina jarraitzen une honetan, Herrialdez Herrialde honelako jokera ageri zaigularik:

**Araban:** Aldundiko iragarpen, agindu, dekretu eta arauak eta Udal batzutatik (Gasteiz, Laudio, Amurrio, Aramaio,...) bidaliak bakarrik euskaraz. Gainerakoak (estatuko administrazioak eta auzitegikoak) gaztelera hutsez argitaratzen dira.

**Bizkaian:** Orain arte Aldundiko testu guztiak eta zenbait udaletakoak ere bai, hala bidaltzen zituztenean. Hemendik aurrera (martxoaren letik) aldizkari osoa euskaraz eta gaztelera agertuko da, gaztelera edo euskara hutsean bidaltzen dituzten testuak beste hizkuntzara itzuliz. Hori burutzeko lana enkantera atera da eta jadanik izendatua izan da enpresa. Testuak zinpeko itzultzaile batek sinatu beharko ditu legezko erantzunkizuna bere gain hartuz. Udaletatik datozten testuen erantzule udalak eurak izango dira.

**Gipuzkoan:** Aldundiko testu guztiak euskaraz eta gaztelera argitaratzen dira. Zenbait udaletakoak ere bai. Hauetan ez dute eskurik sartzen “ezin baitzaio ondorioak ekar ditzakeen inolako aldaketa formalik egin”. Hizkuntza hutsezko zuzenketa tipografikoak, hau da, akats ortografiko nabariak zuzentzen dituzte bakarrik. Estatuko administrazioetik eta epaitegietatik bidalitakoak gaztelera bakarrik.

## b) *Arazorik nagusienak*

Aldundietako Aldizkari Ofizialetako euskararen erabilerari dagokionean honelako arazook nabarmenduko nituzke:

1. *Hiztegi administratibo bateraturik eza.* Oraindik ez dugu euskaraz, ahalegin batzuk egin badira ere, lexiko berbera erabiliz eginiko hizteirik. Aldundi bakoitzeko itzultzaileok hor-hemenka eturri ezberdinetan edandakoez baliatzen gara. Horrek, zenbait kasutan, zehaztasun falta handia sortzen du eta hizkuntzaren baliagarritasuna zalantzan jartzen.

2. *Heltzen diren testuak itzultzeko anarkia.* Arazoa oso larria dugu udaletatik eta heltzen diren testuek izan ohi duten anarkia. Batzutan Euskaltzaindiak aspaldi emaniko arauak ere ez dira betetzen. Euskara onean eginak direnean ere, sarritan nahaste handia gertatzen da lexiko bateratsua ez erabiltzearen ondorioz; Bizkaiko kasuan areagotu egingo da hutsune hau aurrerantzean kanpoan egingo diren testuen inolazko kontrolik ez izatean.

3. *Euskal bertsioa gaztelararen menpe izatea.* Euskaraz eskaintzen den lana, esan dugunez, ia dena euskaratua izaterakoan, gaztelera menpetasuna sortzeko izugarriko arriskua ikusten da. Menpetasun hau areagotu egiten da, sarritan presaka eta laguntza gutxirekin lan egin be-

harra izatean. Kalko hutsak erabiliz, gazteleraren morrontzan erortzeko arrisku horri aurre egiteko bideak ere urratu beharko lirateke.

## 2) **Gainerako testuak**

Erakundeek beren aldizkarietan argitaratzen dituzten testuez gainera, idatzizko produkzio izugarria sortu ohi da Aldundietan. Guzti horrek ere euskaraz joan beharra izaten du. Beraz, hainbat eta hainbat testu ezberdin euskaratu beharra izaten dugu itzultzaileok: egunkarietako iragarriak, zerbitzuetan erabili beharreko inprimakiak, ebazpenak, zenbait jakinerazpen, herritarrei ematen zaizkien erantzunak, era guztietako txostenak, liburuxkak,... Ugariak baino ugariagoak izan ohi dira euskaratu behar izaten diren gaztelerazko testuak.

### a) *Emaniko urratsak*

Azken urte hauetan aurrerakada handiak eman izan dira Aldundietan, herritarrei eskaini ohi dizkien idatzizko testuak euskaratzerakoan. Gaur egun, Gipuzkoan eta Bizkaian halako testu guztiak daude euskaraz eta erdaraz jarrita. Arazoa inprimaketako datuak betetzean gertatzen dira. Askotan nabari-nabari izaten da erdaldun batek bete dituela. Alor honetan honelako urrasok eman direla aitortzeko:

#### 1. *Antolaketa alorrean:*

Esan den bezala hiru Aldundietan egin da aurrerakada erakunde barruko euskararen erabileran. Hala ere lana erdaraz egiten da, gehienbat. Honetan ez da hiru Erakundeetan egoera berdina, Herrialdeetako euskararen egoera ere ezberdina delarik. Orokorrean, alor hau honela antolatuta ageri zaigu:

##### 1.1. *Itzultzaile talde bat arduratzen da euskaratze lanaz.*

**Araban:** Guztira hiru (3) itzultzaile dituzte: 2 inprimategian eta bat Euskalduntze-Zerbitzuan. Testuak Erakundeoko beharrianen eta eskarien arabera euskalduntzen dira. Aurrerakada handia egin bada ere, testuak euskaratzea Sail edo Departamenduen eskarien esku egotean, oso irtenbide mugatua ematen zaio.

**Bizkaian:** Guztira 7 itzultzaile: 2 inprimategian, 1 Ogasunean, 1 Kulturaren, 1 Sustapen Sailean eta 2 Hizkuntza Normalizazioko bulego zentraletan. Beraz lau gune nagusi desberdinetan kokatuta. Hala ere barneko telefono hariz elkar lotuta aurkitzen garenez erraztasunak ditugu



edozein zalantza sortuz gero elkar galdetzeko. Kontsulta horiek egitea, ostera, bakoitzaren eskutan dago! Honetaz gainera kanpoan ere egiten dira itzulpenak, bereziki luzeak direnean, horrelakoek eguneroko lanari erantzutea oztopatzen dutelako. Horrela: aktak, testu luze ezberdinak, liburuak eta liburuxkak.

– Legea betetzeko kanpora bidaltzekoak euskaraz eta gazteleraz bidali behar direnez, gehienetan hala egiten da, presaka ibiltzearen edo arduragabekeriaren ondorioz inoizka gaztelera hutsez egiten bada ere.

– Langileok, ostera, bidaltzen dizkiguten barneko hainbat jakinerazpen, askotan gaztera hutsez jasoten ditugu, ordaindik, behin baino sariago protestarik egin bada ere.

– Arazorik nagusiena, presaka ibili beharra eta kanpoan itzultitako testuen kontrol falta nabarmen daitezke. Argitalpenen kontrol, neurri handi batean, inprimategiko frobak ikuste bidez egiten da. Hau ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera zuena lortzeko.

**Gipuzkoan:** Oso ongi antolatuta ari dira lanean. Ahalegin handia nabari da. Alde batetik itzultzaile talde osoa bulego berebean. Guztira 7 itzultzaile elkarrekin lanean. Beste bi (2) Ogasunean (hauek beren kasa dihardute). Beraiekin batera, beste hamar (10) itzultzaile-laguntzaile dituzte departamentuz departamendu banatuta. Hauek itzultzaile taldearen ardurapean iharduten dute, era berean, erantzun lasterragoa jendeari emanez.

## 1.2. *Prestaketa alorrean:*

Idatziz eskaintzen diren testu ia guztiak itzuliak izaten direnez, garrantzi handia izango du itzultzaileok ahalik eta hobekien prestatuta izateak. Horrek etengabeko heziketa burutzea eskatzen du. Neurri handiago edo txikiagoan hala egiten dela ikusi izan dut.

**Araban:** Itzultzaileak HAEE/IVAPEk antolatutako ikastaroetan parte hartu ohi dute. Erabiltzen duten lexikoari dagokionean Eusko Jaurlaritzako Aldizkari Ofizialekoa erabiltzen dute.

**Bizkaian:** Erraztasun osoak izan ditugu itzulpegintzari buruzko ikastaro eta ihardunaldietan (Madril, Bartzelona eta abarretan) partehartzeko. Horretaz aparte hileru bilera egiten dugu hizkuntza alorreko gai batzuk aztertzeke eta batasuna lortzeko (une honetan Euskaltzaindiaren azken erabakiak aztertzen). Udazkenean ikastaro berezi bat izango dugu lan ordutik kanpo euskal gramatika aztertzeke.

**Gipuzkoan:** Aspaldi aritu izan dira UZEIrekin lankidetzan. Hamabostero biltzen dira eguneroko lanean sortzen diren zalantzak aztertu eta argitzeke.

## 2. Arazo nagusienak.

Laburkiro esanda honako hauek aipatuko nituzke:

2.1. *Ez dugu lexikologia alorrean hitz bilduma bateraturik.* Horrek gure lanari fidagarritasuna kentzen dio. Itzultzaile bakoitzak (edo talde bakoitzak) bere kasara jokatzeari dakar. Horrela ez dago administrazioan benetako bide zuzena egiterik.

2.2. *Sarritan itobeharrean lan egitera behartuak ikusten ditugu geure buruak* eta horrek egia bihur dezake harako esaera zaharra “lan lasterra lan alferra”. Gaztelerako teknikariek nahi duten beste asti izan ondoren eginiko testua bat-batean euskaratu behar izaten dugu.

2.3. *Zerbitzuak hainbat leku ezberdinetan sakabanatuta izateak* ere eragozpenak sortzen ditu itzultzaileen artean, elkarri laguntza emanez konponbideak bilatzerakoan. Horrek, egiten denaren kontrol eza ekarri ohi du.

## 7. KALITATEA BERMATZEKO ZER EGIN DEN

Aldundi ezberdinetan orokorrean eman diren euskararen aldeko urratsak aipatu ondoren, egintza zehatz batzuk gogoratu nahi nituzke beren-beregi erabileraren hobekuntza horretan aparteko eragina izan dutelako:

a) Erakunde ezberdinetako itzultzaileen artean, beste zenbait erakunderen (Euskaltzaindia, UZEI) laguntza jasoz arlo batzuetako lexikologiari buruzko lan bateratua. Bide horretatik eginik:

– Ogasunean erabiltzen den lexikoa bateratu da.

– Euskal Herriko Herri erakundeen barne errotulazioa prestatu da.

– Une honetan, nekazaritza munduko lexikoa aztertzen ari gara, oinarrizko 1.000 hitz bateratsuko zerrenda egiteko asmotan.

– Bizkaian, horretaz gainera, hitzarmen bat egin da Euskaltzaindiarekin toponimoen erabilera zuzena bideratzeko, Onomastikako batzordearekin harreman estuak ditugula.

## 8. BIZKAIERAREN ERABILERA

Arazo hau, bereziki, Bizkaikoa izan arren, gogora ekarri nahi dut, testuek, zerbitzuak jasoten dituztenen mesedetan eginak izan behar dutelako. Nola jokatu izan dugun orain artean?

– Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren testuak, gehienetan, batuan joaten dira.

– Inprimakiak eta jende guztiarentzat eginiko idazkiak ere batuan joaten dira. Horrela komunikabideetako iragarkiak.

– Komunikabideetan ahozko mezuak ematerakoan, batua zein bizkaiera erabili izan dira, ez delarik inolazko eragozpenik izan itzultzaileon aldetik.

– Sail batzutan (nekazaritzan, bereziki) argitaratzen diren liburuska eta liburuetan bizkaiera erabili izan da oso sarri.

– Udal euskaldunei edo bizkaieraz jasotako idazkiei bizkaieraz erantzun izan zaie.

### **Arazoak:**

1. Argitaratzen den testua baserritarrentzat egina izan arren Euskal Herri osorako egina denean (Arrantza, Ehiza eta beste zenbait alorri dagokionean). Halakoetan ahalik eta lexikorik zabalena eta esaldi errazak erabiltzen saiatu gara.

2. Sarritan eragozpena ez da etortzen bizkaiera-batuaren aldetik, gaiaren aldetik baizik. Baserritarrei eta zuzendutako kasu askotan, arazo nagusiena testua ulergarri egitea izaten da. Hitz teknikoak, jakina, ezezagunak eta berriak izan arren erabili egin behar, astiro-astiro zabalduko direla itxaronez.

3. Une honetan foru arau batzuk ere bizkaieraz argitaratzekotan gara, hala, basoei buruzkoak edo eta eragin zuzena baserritarrengan dutenak, gero beraietatik ateratzen diren beste zenbait iragarpen, inprimaki, jakinerazpen eta abar bizkaieraz bidali behar direlako. Horrela oinarritzko legea bizkaieraz egotean ez da kontraesanik gertatuko beraren eta bertatik ateratako beste testuen artean.

## **9. PROPOSAMEN BATZUK**

1. *Lexikologia bateratua*: lexikologia alorrean dugun batasun eza konpontzeko, une honetan hainbat lan eginak ditugunez, noizbehinkako elkarlanean dinamika gaituz, Erakunde bakoitzeko itzultzaile ordezkarriak lan horretarako hiru-lau hilabetetarako askatu beharra ikusten dut, Euskaltzaindiaren gidaritzapean edo arituz gutxienezko batasun bat lehenbailehen lortzeko.

2. *Lexikologia bateratua zabaldu*: Erakunde nagusien artean lexiko alorreko batasun hori lortu ondoren, akordioak udaletara eta irakaskuntzara zabaltzeko bideak jorratu eta ahaleginak egin. Hori hiztegi edo hitz bilduma berezia argitaratuz egin daiteke. Irakaskuntza alorra ere aipatu dut, administrazioari dagozkion zenbait hitz alor horretan txertatu beharra dagoelako.

3. *Euskarazko zerbitzu kateak sortu*: edozein euskaldunek zerbitzuak euskaraz jasoteko duen eskubidea benetan errespetatua izan dadin Administrazio barruan euskarako kateak sortu behar dira, mailaz maila erantzunak euskaraz emateko gai diren pertsonak egokiro banatuz.

4. *Itzultzaileen arteko harremanak bultzatu*: une honetan administrazioan lanean ari garen itzultzaileon artean harreman iraunkorrak sortu beharra ere ikusten dut. Horrela, lexiko mailako arazoez gainera, joserara alorrekoak edo eta bestelako ustekabeak ere talde lanean aztertzeke eta hizkuntzetan izan ohi diren klitxe egokiak euskaraz ere lortzeko bidea izango genuelako.

5. *Euskaldunen kontzientzia bizkortu*: lan garrantzitsua da, baita ere, administrazioa hurbiltzen diren euskaldunak euskara erabiltzera bultzatzea. Euskarazko zerbitzua administrazioak berak, euskalduna beti eskale izan gabe, eskaini beharko luke. Honetan, aipagarri da, euskaraz bizitzea erabaki duten udalek egin duten lan izugarria. Administrazio euskaratzeke bide ezin hobea gertatu dira.

6. *Erakundetik kanpo eginiko itzulpenen kontrola*: ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera zuzena lortzeko. Perretxikoak bezala ugaritu direnez itzultzaile taldeak, administrazioak nolabaiteko kontrola jarri behar du, bere ardurapeko lanak duintasunez argitara daitezen.

7. *Inertiaren aurka jokatzea*: administrazioak nekez ematen ditu urrats berriak. Etenik gabe lehenean irauteko joera du. Hori dela eta, euskaldunok, orain arte egindako lana aztertu eta urrats berriak emateko astia hartu beharra dugu. Noizbehinka berrikusi egin behar dira jadanik euskaratuak digutun inprimaki, iragarpen-eredu eta horrelakoak, zer konpondu edo hobetu ikusteko.

8. *Aldundietan zerbitzuak egiteko ertzain euskaldunak eskatu*. Azken aldi honetan zenbait gertaera lotsagarri jazoten ari dira. Ateko sarre-ara kontrolatzen ari diren ertzainak maiz izaten dira erdaldun hutsak. Sarritan, gainera, euskaraz zuzenduz gero, gaizki erantzuten dute. Akats hau ere zuzendu beharra ikusten dut. Agian, horrela, ertzainek ere gogo gehiago jarriko lukete euskara ikasten.

## 10. ONDORIOA

Azken urte hauetan, lan handia burutu da, oraindik hutsune batzuk nabari badira ere. Hala ere ugaritasuna eta kalitatea ez dira beti elkarrekin ibiltzen. Behar bada, hizkuntzaren erabilera zuzenari arreta handiagoa eman eta horretarako bide egokiak jartzeko garaia.